

## MERKATUA ETA BERE MUGAK

- Zer dira merkatu ekonomiak? Merkatu libreak dira.

### PREZIOAK ETA KANTITATEAK MERKATU EKONOMIETAN

Merkatu ekonomietan prezioak eta kantitateak arlo *mikroekonomikoan* ezartzen dira. Hau da, prezioak eta kantitateak, **banan-banan** ezartzen dira eta ez guztiak batera. Ondasun eta zerbitzu bakoitzaren prezioak eta kantitateak bere **merkatuan** ezartzen dira.

**Ondasun edo zerbitzu baten merkatua: ondasun edo zerbitzu hori erosi nahi duen jende guztia eta saldu nahi duen jende guztiaren arteko harremana.**

Merkatu motak:

- Tokiko merkatuak
- Nazio-merkatuak
- Nazioarteko merkatuak
- ...

Merkatuak mugimendu etengabea daude. Beraz, merkatuak aztertzeko denbora kontuan hartu behar da (hasierako egoera, aldaketak, azken egoera).

Merkatuetan bi alde agertuko zaizkigu: erosleak eta saltzaileak. **Erosleen** aldeari **eskaria (D)** esango diogu. **Saltzaileen** aldeari **eskaintza (O)** esango diogu. Horrela **salerosketa gauzatzen da**. Baina, **nola?**

**Bakoitzaren jokaera baldintzatzen duten faktoreak:**

ESKARIA	ESKAINNTZA
<ul style="list-style-type: none"><li>• Prezioa</li><li>• Errenta</li><li>• Lehentasunak</li><li>• Gustuak</li><li>• Beste ondasun batzuk</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Prezioa</li><li>• Kostuak</li><li>• Produkzio baliabideak (Lehengaiak)</li><li>• Teknologia</li></ul>
<b>HAUEK EZ DIRA ALDATZEN</b>	

### MERKATUA

- Eskaria eta eskaintza merkatu-ekonomiaren funtzionamendua ziurtatzen duten indarrak dira.
- Gaurko mikroekonomia honetaz ari da: eskaria, eskaintza eta merkatu-oreka.

### MERKATU MOTAK ETA KONKURRENTZIA

- **Konkurrentziako merkatua:** erosle eta saltzaile asko dauzkan merkatua eta, asko direnez, haietako bakoitzak ez dauka eraginik merkatuko prezioan.
- **Konkurrentzia perfektua:**

- Ondasunak berdina dira.
- Erosle eta saltzaile asko, prezioan eraginik ez daukatenak.
- Erosle eta saltzaileak prezio-onartzaileak dira.
- **Monopolioa:**
  - Saltzaile bakarra, prezioa kontrolatzen duena.
  - Noiz azaltzen dira? teknologia berrietan, multinazionalan... inbertsioak oso handiak dira enpresa horretan sartu ahal izateko. Enpresa handiak dira.
- **Oligopolioa:**
  - Saltzaile gutxi.
  - Beti ez dago lehia euren artean. Haien artean akordioak ezartzen saiatzen dira.
  - Petrolioaren merkatua, telefoniaren merkatua...
- **Monopolio-konkurrentzia, monopolio-lehia edo lehia-monopolista:**
  - Saltzaile asko.
  - Produktuak euren artean ezberdinak dira.
  - Saltzaile bakoitzak bere produktuen prezioak ezartzen ditu.
  - Bakoitzak bere ondasun bereziak ekoizten ditu, beraz, marka desberdinak topatzen ditugu merkatu honetan.
  - Kasu honetan, publizitateak eragin handia izango du.

### MERKATU EREDUAK

		LEHIA INPERFEKTUA		
	LEHIA PERFEKTUA	LEHIA MONOPOLISTA (adb jatetxea)	OLIGOPOLIOA	MONOPOLIOA
ENPRESA KOPURUA	Asko	Asko	Gutxi	Bat
ENPRESEN ERAGINA PREZIOAN	Batere ez	Txikia	Handia	Erabatekoa
ONDASUNAREN DESBERDINTZE-MAILA	Ez	Badago	Gutxi	Ez
LEHIAREN INTENSITATEA	Handia	Badago	Gutxi	Ez
GARDENTASUNA	Bai	Batzuetan	Ez	Ez
SARTZEKO ETA IRTETEKO HESIAK	Handia	Bai	Ez	Bai